

# Doktoreak Espezializatzeko Deialdia 2015

## OHIKO GALDERAK

### DOKTORETZA ESKURATZEKOURTEA

Nire tesia 2015ean defendatzeko asmoa badut, eskaera orain aurkeztu al dezaket?

Ez. Deialdi honetan parte hartzeko, eskatzaileak doktore titulua 2015eko ekainaren 8a baino lehen, alegia, eskaerak aurkezteko epearen amaiera baino lehen, eskuratu izana egiaztatu beharko du.

Zein izango litzateke doktoregoa eskuratzeko azken eguna, 3.3 oinarriko baldintza betetzeko?

Deialdi honetara beren tesia 2012ko ekainaren 9tik 2015eko ekainaren 8ra bitartean defendatu duten pertsonak aurkez daitezke.

### ALDEZ AURREKO LAGUNTZEKIKO BATERAEZINTASUNA

Eska al dezaket laguntza hau beste unibertsitate batean antzeko laguntzak jaso izan baditut?

Ez. Laguntza hau ez da bateragarria eskatzailea une honetan jasotzen ari den edo lehenago jaso izan dituen beste laguntza batzuekin (beste unibertsitate **batzuetan edo UPV/EHUn**). **Arau honen salbuespen bakarra "UPV/EHUn doktorego ondoko prestakuntza programetan sartu arte doktore berriak kontratatzeke deialdiaren" ondorioz jasotako laguntzek osatzen dute.**

### IKERKETA TALDEA

Zer ulertzen dugu ikerketa talde aitortua esaten dugunean?

Deialdi honetarako, ikerketa talde aitortutzat hartzen ditugu UPV/EHUn edo Eusko Jaurlaritzaren taldeentzako deialdiaren baten finantziazioa lortu duten taldeak, baldin eta laguntza hori 2009tik 2014ra lortu bazuten eta 2015ean indarrean jarraitzen badu.

Nire eskaera aurkeztu al dezaket, hori bermatzen duen taldea ez badago Eusko Jaurlaritzak edo UPV/EHUK aitortuta?

Bai, baina proposatutako taldeak deialdiaren 6. oinarrian ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

Zer gertatuko litzateke ikerketa talde batek deialdi honetan eskaera bat baino gehiago bermatzea erabakiko balu?

Kasu horretan, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak ezarritako luke eskaeren lehentasun-ordena.

### KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Zer ezaugarri dituzte eskaintzen diren kontratuek?

Kontratu hauek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 22. artikuluan daude zehaztuta. Kontratuak lanaldi osoaren % 79,5eko dedikazioa barne hartuko du eta urtebeteko iraupena

izango du. Beste urtebetez luzatu ahal izango da, baldin eta horretarako behar adinako aurrekontua badago eta onuradunak deialdiaren 4.2 oinarrian ezarritako baldintzak betetzen baditu. Ordainsari gordina urtean 25.751 eurokoa izango da, 14 soldatatan banatuta.

Noiz hasiko litzateke nire kontratua?

Kontratuak 2016ko urtarriletik aurrera formalizatuko lirateke.

Eta beranduago hasteko aukerarik izango al nuke?

Bai, gehienez 6 hilabete beranduago.

Kontratu hau beste batzuekin bateragarria al da?

Alde batetik, dedikazioa % 100era arte areagotu ahal izango da, onuraduna barne hartzen duen ikerketa taldeak emandako kanpoko finantziak erabiliz.

Bestalde, % 79,5eko dedikazioa duen kontratu hau astean 3 orduko irakaskuntza kontratuarentako poltsako deialdiekin batera daiteke.

Lehenago 14/2011 Legearen 22. artikuluan zehaztutako kontraturen bat eskuratu izan badut, laguntza hau eska al dezaket?

Bai, baina kontratua sinatzeko unean onuradunak ez badu mota honetako kontratu bat 3 urte baino gehiagoko aldi izan.

### ZUZENDARI ZIENTIFIKOA

Nahitaezkoa al da zuzendari zientifikoak seiurteko aktibo bat izatea?

Bai. Proposatutako zuzendaria ez bada funtzionarioa eta, ondorioz, ezin badu seiurteko bat duela egiaztatu, bere CVa horretarako kontratatutako ebaluazio agentzia batera bidali beharko da, azken sei urteetan egin duen ikerketa jarduera ebalua dezan eta baldintza betetzen duen ezar dezan.

Nola jakin dezaket nire zuzendari zientifikoak seiurtekoren bat aktibo duen ala ez?

Kontsulta iezaiozu zuzenean. Halakorik ez badu, bere CVa ebaluatzerantz bidaltzeko eskaera egin dezakezue, baldintza hori betetzen duen edo ez zehazteko.

Zer beste baldintza bete behar ditu zuzendari zientifikoak?

Talde hauetakoren bateko kide izan behar du: UPV/EHUko irakasle eta **ikertzailea, Ramón y Cajal programako ikertzailea, UPV/EHUri esleitutako** Ikerbasque Fundazioko ikertzailea edo CSIC-UPV/EHU zentro mistoarentako esleitutako CSICeko ikertzailea. Horrez gain, laguntzak iraungo duen gehienezko aldi osoan talde horietako batean jarraituko duela bermatuta izan beharko du (2017ko abendura arte, edo 2018ko ekainera arte, eskatzailea beranduago sartzen bada eta horretarako gehienezko 6 hileko epea erabiltzen badu).

Eta azkenean Batzordeak nire espezializazioa zuzentzeko aukeratu dudan pertsonak horretarako gaitasunik ez duela erabakitzen badu, ba al dut beste norbait hautatzeko aukerarik?

Ez. Proposatutako zuzendariek beren arloari dagozkion baldintzak betetzen dituzten egiazta dezakete, [esteka](#) honetara sartuta. Ebaluazioa negatiboa bada, eskaerak deialdian ezarritako baldintzak betetzen ez dituela ulertuko litzateke eta laguntza ukatu egingo litzateke.

Laguntza ematen badidate, zein sailletara sartuko nintzateke?  
Eskatzaileari esleitzen zaion saila edo institutua proposatutako zuzendari zientifikoari dagokiona izango da kasu guztietan.

### **ESKAEREN AURKEZPENA**

Nola aurkeztu behar dut nire eskaera?

Eskaerak paper formatuan aurkeztuko dira, eskatutako CDarekin batera, UPV/EHUren Erregistroetan edo Correosen bulegoetako edozeinetan. Dokumentazioa gutun-azal ireki batean aurkeztuko da, Erregistroko edo Correoseko langileek eskaeraren lehen orria sinatu ahal izan dezaten, hala badagokio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/92 Legearen 38.4 artikulua araberara.

Beharrezkoa al da UPV/EHURA joatea dokumentazioa entregatzeko?

Ez. Hautagaiak eskaera Correosen edozein bulegotatik bidal dezake, ekainaren 8ra arte (hori barne). Horretarako, dokumentazioa gutun-azal ireki batean eraman beharko du eta Correoseko langileek eskaeraren lehen orria zigilatzen dutela bermatu beharko du, dokumentazioaren aurkezpen data adieraziz. Ondoren, dokumentazioa posta ziurtatu bidez bidali beharko du, honako helbide honetara:

Giza Baliabideen Atala  
Ikerketaren arloko Errektoreordetza  
Errektoretza eraikina  
UPV/EHU  
Sarriena Auzoa, zk.g.  
48940 Leioa (Bizkaia)

Non daude UPV/EHUko erregistro bulegoak, eta zein da horien ordutegia?

Erregistro bulegoei buruzko informazio guztia honako esteka honetan kontsulta daiteke: <https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia>.

Zer ordura arte egongo dira irekita erregistro bulegoak ekainaren 8an, alegia, aurkezteko epearen azken egunean?

Ekainaren 1etik aurrera, erregistro bulegoak 13:00etan itxiko dira egunero, udako lanaldi jarraitua dela eta.

Dokumentu guztiak epearen barnean entregatu ezin izango banitu, nire eskaera atzera botako al litzateke?

Ez, baldin eta gutxienez eskaeraren orria epearen barnean erregistratzen baduzu. Ondoren, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo 20 egun naturaleko epean, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak zuzenketa zerrenda argitaratu eta falta zaizun dokumentazioa aurkezteko 10 eguneko epea irekiko du. Epe hori amaitzen denean, ezin izango da beste dokumentazio

gehigarrik bidali eta ez da aurkeztu gabeko dokumentaziorik berriz erreklamatu. Beraz, osatu gabeko eskaerak dituzten hautagaiek uko egiten dutela ulertuko da.

Erkidegotik kanpoko ikertzaile atzerritarrek ere aurkeztu al dezakete eskaera, Espainian bizitzeko baimenik izan gabe ere?

Bai. Pertsona horiek Espainian bizitzeko eta lan egiteko administrazio baimenaren izapideak egin ditzakete, kontratua sinatu aurretik.

### **BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA**

Aurkezten ditudan doktore tituluak eta euskararen jakite maila egiaztatzen duten ziurtagiriek jatorrizkoak izan behar al dute?

Ez, fotokopiak aurkez daitezke. Laguntza eskuratzen baduzu, kontratua sinatu aurretik jatorrizkoak aurkeztu beharko dituzu, egiaztatuak izan daitezen. Jatorrizkoak aurkezten ez badira edo alegatutako merezimenduak egiaztatu ezin badira, onuradunak laguntzari uko egiten diola ulertuko da.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren lortutako euskararen jakite maila egiaztatzen duen ziurtagiri bat aurkeztu al dezaket?

Ez. Alegatutako merezimenduak 2015eko ekainaren 8a baino lehen eskuratutakoak izan behar dute.

Non eskatu behar dut Lan Bizitzaren Ziurtagiria?

Gizarte Segurantzaren edozein bulegotara bertaratuta edo esteka honetara sartuta eska dezakezu:

<https://w6.seg-social.es/SSC/SwscSeControlador?opcion=1>.

Izapide hau doakoa da.

Nork sinatu behar du Sailaren/Institutuaren Baimena?

Dokumentu honek proposatutako zuzendari zientifikoari dagokion saileko/institutuko zuzendariaren oniritzia izan behar du.

### **HIZKUNTZAK**

Eskaera euskaraz aurkeztu al dezaket?

Noski. Eskaera euskaraz ez dakiten pertsonak ebaluatu behar badute, zurekin harremanetan jarriko gara, bi aukera eskaintzeko: itzulpena eskatzea enpresa espezializatu bati eta zuk itzulpenari oniritzia ematea; edo zuk zeuk, eskatzaile gisa, arrazoizko denbora epe batean itzulpena egiteko aukera ematea.

Eskaera ingelesez aurkeztu al dezaket?

Bai.